

FUNTSEZKO ELKARTEA

Hasieran froga moduan mekanismoa babestuko duen kanpoko 3D inpresora baten bidez sortuko da gure karkaxa. Gainera karkaxa hau bakoitzaren nahietara, beti ere patroiz minimo batzuk jarraituz, posible izango da pertsonalizatzea. Horretarako hainbat kolore eta modelo eskainiko dira, borobilak, obalatuak, karratuak,.. baina kontuan izanik aldaketa hauek espezifikoak izango direla argi geratu behar da prezioak ere pixka bat gora egingo duela.

Aipatu bezala gure mekanismo honek oinarritzko GPS sistema bat izateaz gain soinua emititzen duen bozgorailutxo ere barne. Esan bezala GPS sistema oinarritzkoa da eta 25m-ko erradio batean adieraziko digu gure giltzaren kokalekua telefonoaren bitartez ikusiko dugun mapa txiki batean kolore desberdinak izango dituzten puntuen moduan. Kontrolatzeko balio digun aplikaziotik funtzionamendu osoa kontrolatu eta moldatzeko aukera izago dugu, hau da, soinua bolumena igo, jetxi, soinua aldatu etb. Aldaketa hauek mugikorra eta karkasaren mekanismoa Bluetooth bidez konektatuz egingo dira. Amaitzeko kontuan izan behar dugu karkasak garanti bat edukiko duela, zehazki 3 hilabetekoa baina produktuaren beraren huts egitea bada bakarrik. Bestelako hutsegiteak saihesteko gomendatzen da, uretan ez sartzea eta bero asko dagoen lekuetan ez uztea (berogailuak, ...).



Correos bezalako banaketa enprekin egingo genituzke aliantzak, gure produktuak seguru iritxi daitezten eta beti ere ahalik eta egoera hobereanean. Gainera, honelako enpresa batekin gure produktuak ahal den toki gehienetara iristea bermatuko genuke. Bertako denda eta salgune txikiekin ere komenigarria litzaiguke aliantza batzuk egitea, izan ere denda txikiek elkarren artean aliantzak dituzte eta horrek gure produktua gehiago ezagutzera eta jendearen artean kodizatua egotea bideratuko luke.

